

Zer da Herritar Batasuna?

(1-20)

HERRITAR BATASUNA **Iraultza Sozialistarako** Euskal Herri Langilearen **aliantza** eta **elkargune estrategikoa** da, **masa antolakunde abertzale** eta **iraultzailea**.

Gure antolakundeak izaera **estrategikoa** du. Euskal Herri Langilearen askapen **osoa, integrala**, xede duelako. Suposatzen duena klase, estatu eta patriarkaturik gabeko komunitate libre eta burujabea eraikitzea Euskal Herrian. "Norberagandik bere ahalmen eta gaitasunen arabera; norberari, bere beharren arabera" kontsignan arabera funtzionatzen dena eta historikoki, 1848az geroztik bederen, Marxek eta Engelsek modu zientifikoz formulatu zutenean, **Komunismoa** deitzen zaiona.

Aliantza eta **elkargunea** definitzen dugu Herritar Batasuna, ezen Euskal Herri Langilea osatzen duten sektore anitz guztien antolakuntza izan nahi baitugu. Eta aniztasun hau da, alde batetik, **objektiboa**: beharginen lan indarra zuzenean esplotatzen ez duten sektore sozial guztiek, besteen lanaren lepotik direktoki aberasten ez diren herritarrek osatzen baitute Euskal Herri Langilea. Eta, bestetik, **subjektiboa** dugu: Herritar Batasunak, denetarik eta askotariko joera eta ikusmolde komunista, anarkista zein sozialista iraultzaileen bilgunea baita. Bestalde, aniztasun bikoitz honek **masa antolakunde** egiten gaitu.

Iraultza Sozialistarako aliantza eta elkargunea eta **masa antolakunde iraultzailea** ere bagara. Zeren eta gure helburu estrategikoa soilik iraultza baten bidez lor baitaiteke. Herri Langilea bera subjektu soziopolitikoa duena, Euskal Proletalgo Iraultzaileak gidatuta, bere hegemonia taktiko eta estrategikoaren bidez. Horregatik iraultza hau **Iraultza Sozialista** da. Gure errealitate nazionalan honela zehazten dena: zapaltzen gaituzten Estatu Burges Inperialistak suntsitzea eta Herri zein Langile Botereak zuzendutako Euskal Estatu Sozialista eraikitzea, **Nafarroako Euskal Errepublikak Sozialista**. Izen honetan biltzen baitira gure nazioa definitzen dituzten ezaugarri biak: bata, politiko-juridikoa, territoriala eta historikoa, **Nafartasuna**, eta bestea, etniko, linguistiko eta kulturala, **Euskalduntasuna**. Gure iraultza sozialista, beraz, **Euskal Iraultza Sozialista** da. **Munduko Iraultza Proletarioaren** parte dena, eta horren konkrezioa eta zehaztapena gure klase borrokaren marko nazionalan.

Horiek hala, Euskal Iraultza Sozialistaren kontsignak Herritar Batasunaren **helburu taktiko guztiak** sintetizatu eta barnebiltzen ditu. Hauen artean nabarmendu behar ditugu, alde batetik, **Euskal Nazio Askapen Mugimendua (ENAM)** zenaren lau helburu historikoak: **Independentzia**, **Sozialismoa**, **Berreuskalduntzea** eta **Birbatasun Nazionala**. Eta, bestetik, klase **ekologismo** eta **feminismoaren** ekarpenak, beti ere zapaldu, desjabetu eta esplotatuen zerbitzuan, ulertuak eta praktikatuak.

Azkenik, **ENAM** zenak helburu estrategikoentzat zituenak gureganatu ditugun bezala, helburu **taktiko** diren aldetik bada ere, mugimendu honen 50 urtetako borroka, 1959-2009 bitartean, segida eta jarraipentzat daukagu geure burua, bere legitimitatea historikoa erreibindikatzuz, ongi egindako gauzak onartuz, eta izandako akatsak, okertzeak, gabeziak eta hutsuneak autokritikaren bidez zuzenduz eta konponduz. Nazio-Askapenaren aldeko borroka iraultzaile horren oinordekoak izateagatik, beraz, **antolakunde abertzalea** gara.

¿Que es Herritar Batasuna?

(1-20)

Herritar Batasuna es una alianza y convergencia estratégica del **Pueblo Trabajador Vasco** para hacer la **Revolución Socialista Vasca**, una organización de masas **abertzale** y **revolucionaria**.

Nuestra organización tiene carácter estratégico. Por ser su objetivo la completa, integral, liberación del **Pueblo Trabajador Vasco**. Lo que supone la construcción de una comunidad soberana sin clases, estados ni patriarcado en Euskal Herria. La cual se regira por el principio "de cada cual según su capacidad, a cada cual según sus necesidades", y que históricamente, desde al menos el año 1848, en el que el nombre fue formulado científicamente por Marx y Engels, se llama **Comunismo**.

Definimos a Herritar Batasuna como alianza y convergencia, porque queremos ser la organización de todos los diversos sectores que componen el **Pueblo Trabajador Vasco**. Diversidad que es, por un lado, **objetiva**: todos los sectores sociales que no explotan directamente la fuerza de trabajo de los trabajadores productivos, todos aquellos que no se enriquecen directamente a costa del trabajo de

otros, forman el **Pueblo Trabajador Vasco**. Y por otro lado, **subjetiva**: Herritar Batasuna es lugar de encuentro de las múltiples y diversas tendencias y puntos de vista comunistas, anarquistas y socialistas revolucionarios. Por otro lado, esta doble diversidad nos convierte en una **organización de masas**.

También somos una alianza y convergencia para la **Revolución Socialista** y una organización de masas revolucionaria. Porque nuestro objetivo estratégico solo se puede lograr a través de una revolución. Que tenga como sujeto sociopolítico al **Pueblo Trabajador Vasco**, guiado por el **Proletariado Revolucionario Vasco**, a través de su hegemonía táctica y estratégica. Por ello esta revolución es una revolución socialista. Lo que se concreta para nuestra realidad nacional en la destrucción de los estados burgueses imperialistas que nos oprimen y la construcción del **Estado Socialista Vasco**, basado en el poder obrero y popular, la República Socialista de Navarra. Este nombre incluye las dos características que definen a nuestra nación: una, político-legal, territorial e histórica, **Navarra**, y la otra, étnica, lingüística y cultural, **Euskal Herria**. Nuestra revolución socialista es, por lo tanto, la **Revolución Socialista Vasca**. Parte de la **Revolución Proletaria Mundial**, y su concreción y determinación dentro de nuestro marco nacional de lucha de clases.

Así, el eslogan de la Revolución Socialista Vasca resume e integra todos los objetivos tácticos de la **Herritar Batasuna**. Entre ellos, debemos destacar, por un lado, los cuatro objetivos históricos del Movimiento Vasco de Liberación Nacional (ENAM): **Independencia, Socialismo, Reuskaldunización y Reunificación Nacional**. Y, por otro lado, las contribuciones del **ecologismo** de clase y el **feminismo**, siempre entendidas y practicadas al servicio de las desposeídas y explotadas. Finalmente, del mismo modo que hacemos nuestros los fines estratégicos del MLNV, aún considerándolos objetivos tácticos, también hacemos nuestros los 50 años de lucha de este movimiento, desde 1959 hasta 2009, reivindicando su legitimidad histórica, reconociendo sus aciertos y, con voluntad de corregir sus defectos y errores, mediante la autocrítica. Entonces, como herederos de esta lucha revolucionaria por la Liberación Nacional, somos, también, una organización **abertzale**.